

Gazteek 2011ko foru- eta udal-hauteskundeez izan duten interesak 2009ko autonomia-hauteskundeez izandakoa gainditu du

2011ko hauteskundeetako emaitzek balorazio positiboagoa izan dute 2009koek baino.


EAEko gazteek duela gutxiko udal- eta foru-hauteskundeetan izandako jokaerari buruzko zenbait datu emango ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Gazteek politikari buruz interes apala dutela adierazi arren, 18 eta 29 urte bitartekoen erdiek baino gehixeagok (%53) diote interes nahikoa edo handia izan dutela maiatzaren 22ko udal-hauteskundeez.

Egun bereko foru-hauteskundeekiko interes-maila apalxeagoa izan da (%49).

Bi kasuetan, gazteek bozketa horiez adierazitako interesa ez da biztanleria osoarenaren adinakoa izan.

Nolanahi ere, gazteek 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeez duten interesa 2009ko autonomia-erkidegokoek eragindakoaren gainetik egon da. Hain zuzen ere, orduan, %28k baieztatu zuten hauteskundeekiko interes nahikoa edo handia zutela.



Gazteen herenari baino gehixeagori (%37), interes nahikoa edo handia piztu diote hauteskunde-kanpainari buruzko albisteek. Erdiak baino gehiagok alderdiren baten hauteskunde-programa edo -propaganda irakurri dute (%57), bai eta komunikabideren batean hauteskundeen inguruko elkarrizketaren edo eztabaidaren bat ikusi edo irakurri ere (%54). Mitinetara, ordea, gutxi joan izan dira (%9), biztanleria osoaren proportzio berean, hain zuzen ere.

Hauteskunde-kanpainaren eragina honako hau izan da: gazteen %30entzat oso edo nahikoa baliagarri izan da alderdi bakoitzaren proposamenei eta programei buruzko informazioa eskuratzeko; beste horrenbestentzat (%30), hautagaiak ezagutzeko; %27rentzat, alderdi batzuen eta besteen artean dauden aldeak ikusteko; eta %20entzat botua nori eman erabakitzeko.


Batzar Nagusietarako hauteskunderi dagokienez, hamar gaztetatik hiruk (%29) diote ez dutela boturik eman; %19k ez dute hauteskundeetan egindakoaren berri eman; eta gainerako %52k diote alderdiren bati botua eman diotela. Botu-aukera guztietatik, gazteek gehien adierazi dutena Bildu izan da (guztizkoaren %19).

Udal-hauteskundearen kasuan, datuak oso antzekoak dira: %30ek diote ez dutela boturik eman; %19k ez dute erantzun; %51k alderdi edo koalizioaren bati eman diotela botua, eta horien artean Bildu izan da aukeratuena: 18 eta 29 urte bitarteko gazte guztien %18k botua koalizio horri eman diotela adierazi dute. Gainerako aukeren proportzioak, gazteei dagokienez, apalagoak izan dira.

Boturik eman ez dutela esan duten gazteen ehunekoa handiagoa da biztanleria osokoa baino.

Batzar Nagusietako hauteskundeetan bozkatu duten gazteek zera esan dute: botua nori eman erabakitzeko garaian, garrantzi handiagoa eman diotela alderdi politikoari (%44), proposamenei edo programari (%32) edo hautagaiei (%12) baino.

Udal-hauteskundeetan bozkatu dutenek ere alderdiaren eragina nabarmendu dute (%37), baina hori ez da foru-hauteskundeetan bezain erabakigarria izan. Aitzitik, garrantzi handixeagoa hartu dute hautagaiek (%21ek hautagaia araberaren arabera eman zuten botua).



Nolanahi ere, botua nori eman aukeratzeko garaian, proposamenek eta programek izan duten eragina handiagoa izan da gazteengan biztanleria osoan baino.

Oro har, gazteak pozik daude egindako hautuarekin: horrela sentitzen dira Batzar Nagusietarako botua eman dutenen %94 eta udal-hauteskundeetan botua emandakoen %95. Era berean, foru-hauteskundeetan boturik eman ez zutenen %71, emaitzak ikusita konforme daude beraien abstentzioarekin; gauza bera deritzote udal-hauteskundeetan bozkatzera joan ez zirenen %76k.

Abstentzinoa praktikatzea hauteskunde-kanpaina hasi aurretik erabakita zuten foru-hauteskundeetan abstenitutako gazteen %54k eta udal-hauteskundeetan abstenitutakoen %57k.

Hauteskundeen emaitzei dagokienez, gazteen %47k balorazio positiboa eman diete Batzar Nagusietarako hauteskundeetakoei, eta %45ek udal-hauteskundeetakoei. Bi kasuetan, balorazio positiboaren maila handiagoa da gazteek 2009ko bozketen ostean adierazitakoa baino (%35).

Datuok [2011ko Batzar Nagusietarako eta Udaletarako hauteskunde-ondoko Inkesta](#) eta [Herritarren portaera 2009ko Hauteskunde Autonomikoetan](#) azterlanetatik atera dira. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) burutu ditu bi azterlanak, hauteskunde bakoitzaren ondoren.